

Ebazpena: R50/2022

Espedientea: 10/2014

Gasteizen, 2022ko irailaren 13an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatua– honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA), USLUren zerga-egoitza 2011ko apirilaren 11tik aurrera aldatzearen inguruan, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurrean aurkezturiko gatazkari buruzkoa. Gatazka Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 10/2014 espediente-zenbakiarekin.

AURREKARIAK

1.- USLU 2011ko apirilaren 11n eratu zuen JAAG jaunak. Planteatutako gatazkaren ondorioetarako, honako hauek dira USLUren datu garrantzitsuenak:

- a) Egoitza soziala eta fiskala Bilbon du.
- b) JAAG jauna izendatu da administratzaile bakar; Santanderren du egoitza.
- c) USLUren helburu sozialak honako hauek dira: higiezin jarduera; poliesterezko eta konpositezko piezak eta moldeak, polietilenoazko piezak eta plastikoarekin zerikusia duen guztia fabrikatzea; ostalaritzako

establezimenduak ustiatzea, hala nola tabernak, hotelak, jatetxeak, ostatuak, kafetegiak, pubak, diskotekak, apartahotelak, apartamentu turistikoak, egoitzak, hiribilduak, kanpinak eta bungalowak, propioak nahiz errentan hartutakoak; era guztietako makinak, material elektrikoa eta metalezko arotzeria eraikitzea.

2.- CNESL merkataritza-sozietateak E kalean du egoitza. CNESLk kontratu bat sinatu zuen USLUrekin 2011ko maiatzaren 18an, urtebeteko eperako; haren bidez, CNESLk hainbat zerbitzu ematen dizkio USLUri: idazkaritza, merkataritza-jardueren helbideratzea, etab.

3.- 2011ko maiatzaren 6tik, USLU alta emanda dago jarduera ekonomikoen 1/61740 epigrafean (eraikuntzako materialen, beiraren eta instalazioko gaien handizkako merkataritza). Haren jarduera nagusia plastikozko piezak saltzea eta fabrikatzea da.

4.- USLUren jarduerak Castellon du helbidea. USLUk lokala alokatzeko kontratu bat du, CIV merkataritza-sozietatearekin 2011ko abenduaren 28an sinatua. Kontratu horren bidez, *industria- eta/edo merkataritza-erabilerarako egokia den higiezin bat errentan ematen da, Vinarosen (Castelló), 3.000 metro koadroko azalera duena, gutxi gorabehera. Eraikinaren barruan, barrutik hainbat bulegotan banatutako pabiloi bat dago.* Lokala poliesterezko produktuak fabrikatzeko negozioarako soilik erabili beharko da, eta ezin izango da beste ezein jardueratarako erabili.

5.- Kontabilitatea AGSLk eramaten du, Bilbotik, eta, aldi berean, erakundearen kontabilitatea legeztatzeaz arduratzen da.

6.- 2013ko urtarrilaren 9an, BFAk USLUren helbidea aldatzeko proposamena jakinarazi zion ZAEARI, dela administratzaile bakarrak Santanderren duen

helbidera, dela jarduerak Castellon duen helbidera. Aldaketak 2011ko apirilaren 11tik aurrera izango zituen ondorioak.

5.- Bi hilabete igaro ondoren, Ekonomia Itunarekin eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduarekin bat etorrita, indarrean zeuden *ratione temporis* idazketetan, ZAEAk ez zion aipatu proposamenari erantzun; beraz, BFAk 2014ko martxoaren 3an aurkeztu zuen gatazka Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean.

6- Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta, beraz, bete egin da ZAEAk alegazioak egin eta froga eta dokumentazio egokiak aurkeztu eta proposatzeko izapidea. ZAEAk izapide hori betetzeko epea luzatzeko eskatu ondoren, azkenean, amore emanda, onartu egin da BFAk proposatutako egoitza-aldaketa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumena du, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek *zergadunen egoitza dela eta sor litezkeen desadostasunak ebazteko* eginkizuna esleitzen dio.

2.- Amore ematea

Interesdunik eta, bereziki, zergapekoa bera aurkeztu ez denez, ZAEAk amore emateak —BFAk egindako helbide-aldaketaren proposamena onartuta— bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratzea eragin du, eta Ekonomia

Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratzen den prozeduraren xedea gerora desagertzea eta, ondorioz, artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Gatazka artxibatzea prozeduraren xedea gerora desagertu delako, ZAEAk amore eman baitu BFAk USLUren helbidea aldatzeko egindako proposamenean; 2011ko apirilaren 11tik aurrera izango ditu ondorioak.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta USLUri jakinaraztea.